

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Sobrongo hornidura sistema berritzeko eraikuntza proiektua: la Playa auzoa - A-4326 errepide gurutzera arteko zatia”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko otsailaren 12an egindako bilkuran, 86/2019 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Sobrongo hornikuntza sistema (La Playa auzoa - A-4326 errepidearen bidegurutzera) berritzeko eraikuntza proiektua” jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea. Desjabetzeak eragiten dien ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 17ko 608/2017 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “Sobrongo hornikuntza sistema (La Playa auzoa - A-4326 errepidearen bidegurutzera) berritzeko eraikuntza proiektua”; eta hasierako onespina eman zitzaion proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideak banan-banan eta modu zehaztuan jasotzen dituen zerrendari, eta hura jendaurrean jarri zen.

Ondoren, azaroaren 21eko 695/2017 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiz, urriaren 17ko 608/2017 Erabakiaren bigarren apartatua aldatu zen, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen hasierako beste zerrenda bat onetsi zelako.

Jendaurrean egon zen aldi alegazio teknikoek bi idazki aurkeztu dira, 8/000, 9/000 eta 14/000 finkei dagokienez, eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horiek aztertu eta haien gaineko txostenak egin ditu, zeinak Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onartu baititu eta bere egiten baititu Foru Gobernu Kontseilu honek; haiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta erabakiari osagai ezin bereizi gisa eransten zaizkio. Txosten horiek alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Alegazioei erantzunda, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onetsi behar da, zeina taxutu baita kontuan izanda jendaurreko informazio aldi baietsi diren eta hasieran onetsitako zerrenda aldatzen duten alegazioak; horrez gain, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratu beharra aitortu behar da, desjabetu eta aldi batez okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo amaitzeko.

Abenduaren 23ko 3376/1971 Dekretuak, bere artikulua bakarrean, xedatzen du ezen herriak hornitzeko urak edateko gai bihurtzeko obrak premia aitortukotzat deklaratu direla, Nahitaezko desjabetzeari buruzko legearen 52. artikulua onorioetarako. Hori dela eta, aditzen da proiektu honek dakarren jardunak berekin dakarrela okupatzeko premia, eta desjabetze espediente Nahitaezko desjabetzeari buruzko legean xedatutako presako prozeduraren bidez izapidetu ahal da.

Arabako Foru Aldundiak eskumena dauka proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarrienak, 36. artikuluan eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua onesten duenak, 30.1 eta 6.e) artikuluetan) xedatutakoaren ondorioz. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu nahitaezko desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeak 2.1 artikuluan.

Erakunde horren barnean, proiektuek berekin dakartenean onura publikoaren deklarazioa egin beharra desjabetzei begira eta desjabetzeek erasaten dieten eskubide eta ondasunen behin betiko zerrendari begira, Foru Gobernu Kontseilua da proiektuak onesteko eskumena duen organoa, hala xedatzen baitu abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, bere 8.26) artikuluan eta otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onarenak, bere laugarren xedapen gehigarrian.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. "Sobrongo hornikuntza sistema (La Playa auzoa - A-4326 errepidearen bidegurutzea) berritzeko eraikuntza proiektua" jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea, baietsi edo ezetsita, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak txostenean jasotakoaren arabera.

Bigarrena. Behin betiko onestea eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, honekin batera doan eranskinean jasorikoa.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Laugarrena. Nahitaezko desjabetzeari buruzko legearen 52. artikuluan araututako premiazko prozedura bidez izapidetzea desjabetze espedientea.

Bosgarrena. 16.168,94 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko aurrekontuko 50106.5300.6000004 "Desjabetze hidraulikoak" aurrekontu lerroaren kontura (xedapen erreferentzia: 105-327/000.19.5.19), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justuaren zenbatekoa ordain dezala, Desjabetzapen Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako xedapenaren lerro eta erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren 2018rako aurrekontua gauzatzekoak, bere 16.1.a) artikuluan".

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Lantarongo (Kominioi) eta Gaubeako (Villanueva de Valdegovía) Udaletxeetako lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 14a

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria*  
**MARIA ANGELES GUTIERREZ ONDARZA**

SOBRONKO HORNIDURA SISTEMA BERRITZEREO ERAIKUNTZA PROIEKTUA: LA PLAYA. AUIZOA - A-4326 ERRENDE GURUTZERA ARTEKO ZATIA  
 PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE RENOVACIÓN DEL SISTEMA DE ABASTECIMIENTO SOBRÓN: BARRIO LA PLAYA. - CRUCE CARRETERA A-4326

Esp./Egpc. 2017/191

FINKAREN ZK.	TITULARAREN IZENA	KATASTROKO DATUAK			UDALA	APROBETXAMENDUA	BEHINBETIKOA	ERASINDAKO AZALERA LIT.		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURZATIA	PARCELA				ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES			AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	DEFINITIVA	SUPERFICIE AFECTADA	SERVIDUMBRE	DIA	HORA
		POLIGONO	LURZATIA	PARCELA			TEMPORAL	Condición agua -6 m			
1/070	FORMERIO GARCIA RUIZ	1	465		LANTARON	ETZE / ERIAL		57		12/03/19	10:00
13/000	TOMAS SIAZO IZAR DE LA FUENTE MARIA ISABEL SIAZO IZAR DE LA FUENTE	15	1637		GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		1.374	507	12/03/19	11:15
2/000	TOMAS SIAZO IZAR DE LA FUENTE MARIA ISABEL SIAZO IZAR DE LA FUENTE	1	460		LANTARON	FRUTU ARBOLAK / FRUITALES		90	6	12/03/19	11:15
3/000	TOMAS SIAZO IZAR DE LA FUENTE MARIA ISABEL SIAZO IZAR DE LA FUENTE	1	37		LANTARON	FRUTU ARBOLAK / FRUITALES		499	136	12/03/19	11:15
4/000	TOMAS SIAZO IZAR DE LA FUENTE MARIA ISABEL SIAZO IZAR DE LA FUENTE	1	26		LANTARON	BIZITEG-LURZORU URBANIZATUA / URBANIZADO RESIDENCIAL		134	21	12/03/19	11:15
8/000	BERDOLA, S.A.	1	482		LANTARON	ETZE / ERIAL	868	1756	807	13/03/19	10:00
9/000	BERDOLA, S.A.	1	483		LANTARON	ETZE / ERIAL	27	2.751	1.195	13/03/19	10:00
9/090	BERDOLA, S.A.	1	860		LANTARON	ETZE / ERIAL	36	2.623	1.207	13/03/19	10:00
10/080	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	961		LANTARON	ETZE / ERIAL		109	109	13/03/19	12:00
10/090	JUNTA ADMINISTRATIVA DE SOBRON	1	960		LANTARON	ETZE / ERIAL		16	16	13/03/19	12:00
10/000	DESCONOCIDO	1	958		LANTARON	ETZE / ERIAL	9	123	123	14/03/19	10:00
1/000	GREGORIO LOPEZ DE LABRINZAR BARDECI	1	461		LANTARON	ETZE / ERIAL		294	17	14/03/19	10:15
1/060	AYUNTAMIENTO DE LANTARON	1	466		LANTARON	ETZE / ERIAL		16		14/03/19	11:30
1/080	AYUNTAMIENTO DE LANTARON	1	467		LANTARON	ETZE / ERIAL		334	92	14/03/19	11:30
1/090	AYUNTAMIENTO DE LANTARON	1	464		LANTARON	ETZE / ERIAL	18	2.910	1.120	14/03/19	11:30
14/000	FELIPE BARRIO LOPEZ	15	1652		GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	9	1.725	657	15/03/19	10:00
15/000	VICTORIA CORCUERA ORTIZ	15	1638		GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO	9	1.565	611	15/03/19	10:45
16/000	ANGEL SALAZAR ARTIETA JESUS SALAZAR ARTIETA	13	847		GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		476	83	15/03/19	12:00
11/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE BACHICABO	15	1653		GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		144	18	15/03/19	12:45
12/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE BACHICABO	15	1655		GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		146	76	15/03/19	12:45
					GAUBEA / VALDEGOVIA	LEHORREKO LABOREA / TIERRA DE LABOR SECANO		547	120	15/03/19	12:45